



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Guridiren *Mari-Eli* zarzuela, Calixto Bieitok zuzendutakoa, eta Tennessee Williamsen *Kristalezko zooa* antzezlan, Natalia Menéndezek zuzendutakoa, 2024-2025 denboraldiko ekoizpen propio nagusiak

- Arriaga Antzokiak Jesús Guridiren *Mari-Eli* zarzuela produzituko du, Calixto Bieitok zuzenduta eta Bilboko Koral Elkarte eta Bilbao Orkestra Sinfonikoaren (BOS) parte hartzearekin; ikuskizun hau apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean estreinatuko da, BBKren lankidetzarekin.
- Arriaga Antzokiak Tennessee Williamsen *Kristalezko zooa/El zoo de cristal* ekoiztuko du, Natalia Menéndezek zuzenduta, eta Mikel Losada, Ione Irazabal, Miren Gaztañaga eta Arnatz Puertas protagonista; euskaraz estreinatuko da martxoaren 21etik 23ra, eta gaztelaniaz apirilaren 3tik 6ra.
- Beste ekoizpen propio batek, Beethovenen *Missa Solemnis* kontzertuak, ekainaren 21ean denboraldiari amaiera emango dio: Vanessa Goikoetxea, Nerea Berraondo, Michael Porter eta David Menéndezek ahotsak, BOS, Bilboko Koral Elkarte eta Iruñeko Orfeoia izango ditugu elkarrekin.
- *La lucha por la vida* Ramón Bareak zuzendutako Arriaga Antzokiaren ekoizpenak azken emanaldi bat eskainiko du apirilaren 12an, agur eta amaiera gisa, bira arrakastatsu bat egin ondoren.
- Arriaga Antzokiak, Principal Antzokiarekin eta Victoria Eugenia Antzokiarekin batera bultzatutako "Antzerkigintza berriak" programan sortutako *¿Quién nos disparó?* obra otsailaren 13an ikusi ahalko dugu.
- Arriaga Antzokiak tokiko sorkuntzarekin elkarlanean dihardu, Arriagan bertan estreinatuko diren proiektu hauetan: *El dilema del corcho*, *Miñan*, *Presunto*, *El corazón y otros materiales de derribo* eta *Lorerik ez, hiletarik ez, adiorik ez/Ni flores, ni funeral, ni cenizas, ni tantán*.
- Izen handiak bai agertokian, bai zuzentzen, hona ordena kronologikoan: Silvia Abril, Maribel Salas, Natalia Menéndez, Ramón Barea, Itziar Lazkano, Aitana Sánchez-Gijón, Malena Alterio, Alberto San Juan, Fernando Bernués, Juan Mayorga, José Sacristán, María Goiricelaya, Ane Pikaza, Andrés Lima, Blanca Portillo, Nathalie Poza, Pablo Derqui, Emma Suárez, Helena Pimenta, Sergio Peris-Mencheta, Mireia Gabilondo, Calixto Bieito, Fernando Guillén Cuervo, Adolfo Fernández, Fernando Cayo, Nuria Espert, Mario Gas, Vicky Peña, Victoria Abril... eta beste asko.
- Nazioarteko lehen mailako lau dantza-konpainia: Momix, Ballett am Rhein, CCN/Aterballetto eta Martha Graham Dance Company.
- *El fantasma de la ópera*, *Chicago* edo *Priscilla* musikalak; La fura-ren *Carmina Burana*, kontzertuak... programazioa oso zabala da.
- Arriaga Antzokiak berariazko programen aldeko apustua egiten jarraitzen du, ABAO Txiki Arriagan eta Lied Arriagan, besteak beste.

Bilbon, 2024ko ekainaren 3a.- Calixto Bieito Arriaga Antzokiko zuzendari artistikoak gaur goizean eman du Arriagak 2024-2025 denboraldian eskainiko dituen ikuskizunen programazioaren berri. Denboraldia 2024ko abuztutik 2025eko ekainera arte luzatuko da, bi hilabete horiek barne hartuz. Gaur iragarritako berritasunak, dena den, irailaren erdialdetik aurrera etorriko denari buruzkoak dira, izan ere dagoeneko jakina da udako programazioaren eta Aste Nagusiaren ikuskizun izarra **El fantasma de la opera** musikala izango dela, abuztuaren 14tik irailaren 15era ikusgai egongo dena.

Programazio berriak tokiko eszenari bultzada bat ematen jarraitzen du, Espainiako Estatuan egiten den antzerkirik onena eskaintzeaz gain, eta Arriaga Antzokiak nazioartean duen posizionamendu onari eusten dio.

Ekoizpen propioaren aldeko apustua

Ekoizpen berrien eszenaratzeak Arriaga Antzokiaren funtsezko oinarrietako bat izaten jarraituko du datorren denboraldian.

Antzerkirako produkzio propio handia **Kristalezko zooa** (euskaraz) edo **El zoo de cristal** (gaztelaniaz) izango da. Izan ere, **Natalia Menéndez** egile eta zuzendari prestigiotsuaren zuzendaritza eszenikoarekin, Arriaga Antzokiak antzezlan honekin helduko dio antzerkirako bere hurrengo proiektuari. Produkzio berria euskaraz estreinatuko da lehenik, 2025eko martxoaren 21etik 23ra, eta, ondoren, gaztelaniaz, apirilaren 3tik 6ra. Antzetzaldea berbera izango da bi bertsioetan: **Mikel Losada, Ione Irazabal, Miren Gaztañaga eta Arnatz Puertas**. *Kristalezko zooa*, 1944an idatzi zen, eta **Tennessee Williamsek**, XX. mendean Estatu Batuetan izan zen antzerkigile eta idazle ospetsuenetako bat denak, estreinatu zuen lehen obra da. Laster eraman zuten pantailara, bere beste hainbat dramarekin egingo zuten bezala. Errealismo psikologiko estatubatuarren aitzindaria zen, hegoaldeko gizarte dekadente eta itogarriaren lekuko, eta ederki asmatu zuen mundu krudel eta gaizto horretako desamodioa, sexu-, arraza- eta gizarte-errepresioak sakontasun sotil eta zorrotz batez islatzen. *Kristalezko zooa* aintzatespen ugari jaso zituen, tartean New Yorkeko Antzerki Kritikarien Zirkuluaren Saria eta antzerkiaren Pulitzer saria.

Natalia Menéndezen proposamenak Estatu Batuetako hogeita hamarreko hamarkadaz hitz egingo duen muntaia bat sortu nahi du, konbentzionalismoetatik ihesi eta Tennessee Williamsek nahi zuen askatasunetik hurbil dagoen askatasun bat bilatuz, proposatzen duen errealitate poetikoari hobeto aurre egiteko. Helburua ez da maisulan handi honekin beste istorio bat sortzea, istorio berri bat sortzea baizik. **Kepa Errastik** moldatu du testua euskarazko bertsiorako.

Antzerkiarekin jarraituz, **La lucha por la vida**, Arriaga Antzokiak 2023an Teatro Españolekin egindako koprodukzioa, etxera itzuliko da apirilaren 12an azken emanaldi bat eskaintzeko. Gainera, **Ramón Barea** zuzendariak egindako doikuntzei eta kritika bikainak jaso dituen biraren ondorioz, Bilbora iritsiko da antzerki-artefaktu biribil gisa. Beraz, Arriaga Antzokiak **Pío Barojaren** trilogian oinarritutako obra hau ikusteko azken aukera eskainiko du, **Arnatz Puertasek, Aitor Fernandinok, Olatz Ganboak, Ione Irazabalek, Itziar Lazkanok, Sandra Ortuetak, Alfonso Torregrosak, Leire Ormazabalek, Diego Pérezek eta Ramón Bareak** berak interpretatuta.

Datorren denboraldiko produkzio liriko handiak berriro ekarriko du Zarzuela Arriaga Antzokira, **Calixto Bieito**ren eskutik. Arriaga Antzokiko zuzendari artistikoak berak zuzenduko du Jesus Guridiren **Mari-Eli**. Zarzuela hori Madrilen estreinatu zen 1936ko apirilean eta Gerra Zibilaren ondoren interpretatu zen, 1941ean, Bilbon, Bilboko Korral Elkartearen Denboraldi Lirikoaren barruan. Carlos Arniches eta Eloy Garayren libretoarekin, obraren izaerari dagokionez bestelako Guridi bat erakusten digun obra

da, baina, aldi berean, erraza da Guridi ezagutzea, bere idazkera musikalaren kalitatea dela eta. *Mari-Eli*ren estreinaldia (2025eko apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean) lehen mailako berreskurapen musikologiko bat da; izan ere, egungo begirada bat emango zaio Zarzuela honi, generoari dagozkion erreferente ugariarekin, eta dimentsio oso desberdin bat hartuko du Calixto Bieitoren zuzendaritza eszenikoari esker. Gainera, Guridiri hain lotuta dagoen **Bilboko Koral Elkarteak** proiektu honetan parte hartu izanak kantu koralaren transmisioaren egungo indarra sinbolizatzen du, bai eta Arriaga Antzokiak ikuskizun honen bidez hori aldarrikatzeko eta indartzeko egiten duen apustua. **Bilbao Orkestra Sinfonikoak (BOS)** ere parte hartuko du, eta aurrerago jakinaraziko da nortzuk diren ahots bakarlariak. Azpimarratzekoa da *Mari-Eli* Arriaga Antzokiaren ekoizpen propio bat dela eta **BBKren laguntzarekin** egiten dela.

Azkenik, Arriaga Antzokiak 2020ko koronabirusaren pandemiaren erruz tiraderan geratu zen proiektu bat berreskuratu eta atondu du. **Ludwig van Beethovenen *Missa Solemnis*** da, zeina kontzertu formatuan eskainiko baitzaie ikusleei. **Erik Nielsen** maisuak **Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS)** gidatuko du bere batutaz, lehen mailako lau ahots bakarlari lehen lerroan dituen emanaldi batean: **Vanessa Goikoetxea, Nerea Berraondo, Michael Porter eta David Menéndez**. **Bilboko Koral Elkartearen** eta **Iruñeko Orfeoien** parte-hartzeari esker, piezaren indar korala nabarmena izango da. *Missa Solemnis* maisulan monumentala da, liturgia kristau baterako konposatutakoa, baina erlijioso den hori gainditzen du, gizatasuna eta erredentzioa bezalako gai unibertsalak jorratzen baititu. Horixe izango da denboraldiko azken ikuskizuna, ekainaren 21ean eskainiko duguna. Zentzumenentzako plazer bat izango da bere edertasun eta ahalmen emozionalarekin mendeetan zehar entzuleak eta musikariak inspiratu dituen konposizio honekin amaitzea.

Hala ere, "Arriaga zigilua" beste ikuskizun batzuetan ere izango dugu. Horren adibide da *¿Quién nos disparó?*, Gasteizko Principal Antzokiak, Donostiako Victoria Eugenia Antzokiak eta Bilboko Arriaga Antzokiak berak bultzatutako "Antzerkigintza berriak - Nuevas dramaturgias" programaren barruan sortutako proiektua. Orain, Pabellón 6 konpainiak bere gain hartu du **Alexander Stanciuren** obra honen ekoizpena, **Ramón Bareak** zuzendu eta **Ane Gabarain, Itziar Lazkano, Olatz Ganboa, Juana Lor eta Diego Pérezek** antzeztuko dutena. Otsailaren 13an estreinatuko da.

Arriaga Antzokiak zenbait euskal sortzaile edo talderen beste bost ikuskizunekin ere egingo du elkarlana, horien estreinaldiak eskainiz, urrian horietako hiru. 18tik 20ra, **Tartean Teatroak Patxo Telleriaren *El dilema del corcho*** estreinatuko du, etikari, koherentziari, traizioari eta mendekuei buruzko antzerki joko dibertigarri bat, Telleria bera eta **Ramón Barea** protagonista dituen, **Mireia Gabilondoren** zuzendaritzapean. Lan hau euskaraz estreinatu zen iaz, *Kortxoaren dilema* izenburupean. Urriaren 24tik 26ra **Miñan** iritsiko da, Artedrama konpainiaren lan berria, **Ander Lipusek** zuzendutakoa, zeina **Ibrahima Balde eta Amets Arzallusen** liburuan oinarritzen baita. Urriaren 30ean, **Olatz Beobidek** zuzendutako **Idoia Merodioren *Presunto*** obraren estreinaldia izango dugu. Arriaga Antzokiaren lankidetzaren beste proiektu bat **Eusebio Calongeren *El corazón y otros materiales de derribo*** da. Azaroaren 20an eta 21ean estreinatuko da, **Borja Ruizen** zuzendaritzapean.

Eta 2025eko urtarrilerako geratuko da **La dramática errante** konpainiaren proiektu berriaren estreinaldia, euskaraz (urtarrilaren 23an) zein gaztelaniaz (24an eta 25ean). **Lorerik ez, hiletarik ez, adiorik ez/Ni flores, ni funeral, ni cenizas, ni tantán** antzezlanaz argi gara. **María Goiricelayaren** dramaturgia eta zuzendaritzapean arituko da **Ane Pikaza, Aitor Borobia, Loli Astoreka, Patxo Telleria, Egoitz Sanchez eta Idoia Merodiok** osatutako antzeztaldea. Patxo Telleriak berak egin du euskarazko bertsioa.

Arriaga gehiago

Musikaren atalari dagokionez, Arriaga Antzokiak, Rubén Fdez. Aguirre maisuaren lankidetzarekin, **Lied Arriagan** zikloarekin jarraituko du. Bost ahots eta piano errezital egingo dira foyerrean 2025eko lehen seihilekoan: **Irene Mas Salom eta Malcolm Martineau** (urtarrilak 29); **Josep Ramón Olive eta Francisco Poyato** (otsailak 26); **Inés Lorans eta Rubén Fdez. Aguirre** (apirilak 23); **Laura Brasó, Mikel Uskola eta Rubén Fdez. Aguirre** (maiatzak 27); eta **Núria Rial eta Rubén Fdez. Aguirre** (ekainak 18).

Agertoki nagusira itzuliz, gogorarazi beharra dago Arriaga Antzokiak ABAOrekin batera **ABAO Txiki Arriagan** programan parte hartzen duela. Programa horren baitan lau ikuskizun izango dira: *Pedro eta otsoa* (azaroak 23 eta 24), *D´Artagnan y los jóvenes mosqueteros* (urtarrilaren 3tik 5era), *El traje nuevo del emperador* (martxoak 15 eta 16) eta *¡Soy salvaje!* (maiatzak 10 eta 11).

Eusko labelarekin

Aurten ere, Arriaga Antzokia euskal kulturaren epizentroan dago. Arriagaren ekoizpen propioez eta elkarlanean gain, Euskadin fakturatutako beste hainbat proiektu taularatuko dira, estreinaldiak ere tarteko. Urriaren 22an, **Pabellón 6eko Gazte konpainiak Alfredo Sanzolen *Días estupendos*** antzeztuko du, **Itziar Lazkanoren** zuzendaritzapean. Azaroaren 6an **Hika Teatroaren *Zorretan*** antzeztanaren txanda izango da, **Agurtzane Intxaurrearen** euskarazko testuarekin. Euskaraz antzeztuko dute ere **Ramón Agirre eta Naiara Arnedok Simon Stephensen *Heisenberg*** pieza, **Fernando Bernuések** zuzendutakoa, eta Arriaga Antzokian estreinatuko da. Proposamen hau bestelakoa da eta foyerrean izango dugu, abenduaren 3an.

2025 urtea hasi orduko, bi estreinaldi izango ditugu: urtarrilaren 7an, *Antiguona* izango dugu, **Chema Trujillok** idatzi eta zuzendutako testua, eta 9an, **David Caiñaren *La boda de otros***. Hilabete horretan bertan, 14an, **José Luis Esteban eta Naiel Ibarrolaren *¡Hazmerreir!*** ikuskizuna izango dugu Arriagan, **Sobras completas** proiektuari jarraipena ematen dion ikuskizuna. Hurrengo egunean, urtarrilaren 15ean, **Javier Liñeraren *Lohi gorria*** antzeztuko da, *Barro rojo* lanaren euskarazko bertsioa. Otsailaren 19an **Arnatz Puertasen *Eros y sus máscaras*** obra antzeztuko da.

2025eko martxoan **Loraldia** jaialdia egingo da, eta Arriaga Antzokian ere izango du leku bat. Aurrerago emango da programazioaren berri. Eta apirilaren 9an, euskaraz, eta 10ean, gaztelaniaz, **Mireia Gabilondok** idatzi eta zuzendutako proiektu berri bat ikusi ahal izango dute bertarutzen direnek. Proiektu horren euskarazko izenburua ***Badakizu plastikozko loreak ez dira inoiz bizi, ezta?*** da. Eta gaztelaniazkoa ***¿Sabes que las flores de plástico nunca han vivido, verdad?***

Antzerki asko

Aipatutako euskal antzezlanen gain, Arriaga Antzokiak estatu mailan ekoizten ari denaren onena eskaini nahi dio Bilbori. Udari agur esateko, irailaren 20tik 22ra, ***Las asambleístas*** antzezlana iritsiko da. **José Troncosok** zuzendutako komedia bat da, eta **Silvia Abril, Maribel Salas eta Pepa Zaragoza** ditu antzeztaldean. Urriaren 8an eta 9an **Rubén de Eguíak *En mitad de tanto fuego*** antzeztuko du, **Alberto Conejeroren** urriaren 31tik azaroaren 3ra ***La madre*** antzeztanaren hartuko du eszenatokia, non **Aitana Sánchez-Gijón** izango dugu **Florian Zellerren** obraren protagonista gisa. Egun gutxi batzuk geroago, azaroaren 7an, ***Cucaracha con paisaje de fondo*** emanaldi bat izango dugu, **Javier Ballesterosek** idatzi eta zuzendutakoa. Obra horrek bi MAX sari irabazi ditu. Eta jarraian, **Malena Alterio eta David Lorenteren** txanda izango da, **Daniel Veronesek** zuzendutako ***Los amigos de ellos dos*** antzeztanean, zeina azaroaren 9an eta 10ean ikusi ahalko baitugu; eta **Alberto San Juanena** azaroaren 14an iritsiko da, ***Macho grita*** komedia musikalarekin.

2025erako jauziak, antzerkiari dagokionez, **José Sacristán** handia ekarriko digu Arriagara, bera baita **Juan Mayorgak** idatzi eta zuzendutako **La colección** antzeztaldeko burua. Emanaldiak urtarrilaren 16tik 19ra eskainiko dira. Bi aste geroago, Arriaga Antzokian **1936 (Shock 0)** izango dugu, **Andrés Limaren** Espainiako Gerra Zibilari buruzko antzerki-proiektua (urtarrilak 31 eta otsailak 1), **Blanca Portillo**, **Guillermo Toledo** edo **Alba Flores** bezalako maila handiko aktoreekin.

Kristalezko zoota Arriagaren produkzioaz gain, ikusleek **Tennessee Williamsen** klasiko handi bat oholtzaratzen duen beste ikuskizun bat ikusteko aukera izango dute, kasu honetan **Un tranvía llamado deseo** izango da, **David Serranok** berak zuzendu eta egin duen egokitzapen batean. Antzeztaldean, besteak beste, **Nathalie Poza**, **Pablo Derqui**, **Jorge Usón** eta **Carmen Barrantes** izango ditugu. Otsailaren 14an eta 15ean izango da. Ondoren, **Carmen Martín Gaiteren** **El cuarto de atrás** iritsiko da (otsailaren 20tik 22ra), **María Folgueraren** egokitzapenarekin, eta **Emma Suárez** eta **Alberto Iglesias** protagonista dituela.

Martxoan, hilaren 6an, **Entrega en mano** komedia korrosiboa lurreratuko da, **Cándido Pazóren** egokitzapena, **Martin McDonaghen** jatorrizkoan oinarrituz egindakoa. Bi egun geroago —martxoaren 8an eta 9an—, **Leopoldo Alas "Clarín"-en** **La regentarekin** izango da hitzordua, **Eduardo Galánek** egokitu eta **Helena Pimentak** zuzendu duten antzeztalarekin, non **Ana Ruiz**, **Joaquín Notario** edo **Jacobo Dicenta** aktoreak izango ditugun, besteak beste. Martxoaren 26an **14.4**ren emanaldi bat izango dugu, **Juan Diego Bottok** idatzi eta **Sergio Peris-Menchetak** zuzendutako antzerkirako proiektua, **Ahmed Younoussik** antzeztuko duena.

Roberto Santiagok **Agatha Christie** handiaren obretako bat egokitu du, **Testigo de cargo**. **Fernando Bernuések** zuzentzen du maiatzaren 3an Arriagan izango den muntaia, zeinetan **Fernando Guillén Cuervo** buru duen eta kideen artean **Adolfo Fernández** ere izango duen antzeztaldea ikusteko aukera izango baitugu. Ondoren, hilaren 16tik 18ra, **Los lunes al sol** **Fernando León de Aranoaren** film ahaztezinaren antzerkirako egokitzapenaren hiru emanaldi programatu ditugu. **Ignacio del Moralek** eta **Javier Hernández-Simónek** egin dute bertsioa, eta azkenak zuzentzen du obra, zeinetan, besteak beste, **Fernando Cayo** edo **Marcial Álvarez** aktoreak izango baititugu. Eta maiatza amaitzeko, 30ean eta 31n, **Nuria Espert** handia itzuliko da **Todos pájaros** lanarekin: **Vicky Peñarekin** eta **Candela Serratekin** partekatuko du agertokia **Wajdi Mouawaden** obra honetan, **Mario Gas** zuzendari duela.

Badira beste bi proposamen interesgarri ekainerako: **Medusa**, **Victoria Abril** protagonista duena, 6tik 8ra; eta **El rey que fue**, 13tik 15era, **Joglarsen** azken apustua, zeinak **Albert Boadellak** konpainia eta **Ramón Fontseré** berriro zuzentzea eragin baitu, elkarrekin egin zuten azken proiektutik hamar urte igaro direnean. Biek sinatzen dute errege emerituaren bizitzari buruzko lan honen dramaturgia.

Dantza programa zoragarria

Aurten ere, Arriaga Antzokiak dantza-programa interesgarri eta askotarikoa prestatu du, ikuskizun oso desberdinekin eta dantzaren eta gorputz-adierazpenaren mundura ikuspegi oso desberdinetatik hurbiltzen diren artistekin.

Urriaren 11n eta 12an, Arriaga Antzokian **Dream** ikuskizuna izango dugu, **Natalia Menéndezek** sortu eta zuzendutakoa, eta **Israel Galván**ek interpretatu eta koreografiatutakoa. Dantza, antzerkia eta flamenkoa uztartuz, amaren eta seme-alaben arteko harremana aztertzearen aldeko apustua egiten du obra honek.

Nazioarteko lehen proposamena azaroaren 26tik abenduaren 1era bitartean iritsiko da: **Momix** konpainia. Ilusioa, akrobazia, magia eta fantasia nahastuz, Bilbora iritsiko da Moses Pendleton-ek sortutako **Alice**. Literatura unibertsaleko istorio ezagun, apetatsu, entretenigarri eta magikoenetako baten egokitzapen pertsonal eta askea da, hau da, 1865ean argitaratu zen Lewis Carrolen *Alizia herrialde miresgarrian* liburuarena.

2025ean, otsailaren 28an eta martxoaren 1ean, dantza-programazioaren proposamen handienetako bat iritsiko da. **Ballett am Rhein Düsseldorf Duisburg**, Alemaniako dantza konpainia prestigiotsua Bilbora etorriko da, nazioarteko izen handiko hiru koreograforen hiru pieza dituen programa hirukoitzarekin; izan ere **George Balanchine, Hans van Manen eta William Forsythe**ren piezak ikusi ahalko ditugu.

CCN / Aterballetto da dantzaren egutegiko beste hitzordu garrantzitsuetako baten protagonista. Centro Coreografico Nazionale (CCN) / Aterballetto Italiako lehen Koreografia Zentro Nazionalea da. 2022an sortu zen, 1977tik aktibo izan den Aterballetto konpainia historikotik abiatuta. Hamasei dantzarik lan egiten dute nazioarteko koreografo handien produkzio berrietan, obra enblematikoak interpretatuz. Martxoaren 28an eta 29an Arriagara iritsiko dira **Iratxe Ansa eta Igor Bacovich, Crystal Pite eta Diego Tortelli**ren piezekin osatutako programa hirukoitz batekin.

Azkenik, **Martha Graham Dance Company** ospetsuak lau pieza eskainiko ditu maiatzaren 23an eta 24an Arriagan, **Martha Graham** ahaztezinaren bi maisulan (horietako bat **Janet Eilber** konpainiaren egungo zuzendari artistikoak berrinterpretatuta) eta **Jamar Roberts** edo **Hofesh Shechter** bezalako artista garaikide handien pieza irudimentsuak nahasten dituen programari helduta. Estatu Batuetako dantza-konpainia zaharrena ikusteko aukera paregabea izango da.

Kontzertuak eta lirika

Musikak beti du lehentasunezko lekua Arriaga Antzokiaren programazioan, eta hala izango da ere datorren denboraldian. Denboraldiko lehen kontzertua irailaren 24an izango da eta **Bilboko Miserikordia Etxe Santu eta Errealaren omenaldi** bat izan nahi du, hiriko erakunderik zaharrenetarikoa baita, eta aurten sortu izanaren 250. urte ospatuko baititu. Lau ahots bakarlarik, BOSeK eta Bilboko Koralek, Diego Martín-Etxebarriaren batutaren gidaritzapean, Escudero, Arriaga eta Mozarten musika joko dute. Jarraian, irailaren 26tik urriaren 6ra, Carl Orff-en **Carmina Burana** ikusgarria itzuliko da, **La Fura dels Bausek** sortutako kontzertu antzeztua, 2018an Arriagan arrakasta handia lortu zuena.

Gure kantautore handienetako batek, **Ruper Ordorikak**, bere *Bakarka* proiektuari jarraipena ematen dio *Bakarka bi* argitaratuz, non bere kantuak biluzten jarraitzen baitu, ahots eta gitarra formatu akustikoan, eta hala aurkeztuko da ikusleen aurrean urriaren 13an. Autore-kantuari atxikitako beste artista bat **Tontxu Ipiña** bilbotarra da, urriaren 27an agertuko dena. Eta kantautoreekin jarraituz, **Ismael Serrano** azaroaren 12an etorriko da bere *La canción de nuestra vida* birarekin, errezital konbentzionaletik ihes eginez eta berak garatzen duen antzerki-apustuan sakonduz.

Azaroaren 17an, **Bilboko Elkarteko Haur Abesbatzek eta Jesus Guridi Orkestrak** **Kantu sarea** izeneko kontzertu bat eskainiko dute. Bertan, 150 haur eta gazte baino gehiagok parte hartuko dute, eta euren musika eta ilusioarekin bilduko gaituzte.

2025a hasi eta gutxira, Bilboko talde karismatikoenetako batek, **Doctor Deseok**, bi egun jarraian emango ditu Arriagan (urtarrilaren 10ean eta 11n) *Suavemente me mata con su canción* birarekin.

Otsailaren 16an **Diana Navarrok** XX. mendetik XXI. mendera arteko koplak ekarriko ditu *De la Piquer a la Navarro* kontzertuaren bidez. 2022an Arriaga Antzokian ikusi ahal izan genuen *En tierra extraña* ikuskizunean Concha Piquer antzeztuz aktore gisa arrakasta handia lortu ondoren, Dianak artista handi hura eta koplaren generoa omendu nahi izan ditu, haren kanturik enblematikoenak eta ezezagunenak birsortuz. Astebete geroago, otsailaren 23an, **Bilboko Udal Bandak** Bilboko entzuleriari eskainitako kontzertu bat izango dugu, non Rossini eta Blanquerren obrak joko dituen.

Martxoaren 2an Arriaga Antzokian Xabier Lete euskal sortzaile unibertsal handienetako bat omentzen duen emanaldi berezia izango dugu. **Hesia urraturik** da **Joxan Goikoetxeak** Oratorio sinfoniko-koral gisa bere oroimenez idatzitako lanaren izenburua. Duela pare bat urte ganbera-bertsio batekin gozatu genuen gure foyerrean, eta orain eszenatokian eskainiko dugu pieza hau, bere bikaintasun osoan, musikari handiekin eta Landarbaso Abesbatzarekin, Iñaki Tolaretxipiren zuzendaritzapean.

Apirilaren 11n, azken bi hamarkadetan nazioartean proiektio handia izan duen abeslari bat iritsiko da Siziliatik: **Mario Biondi**, estilo ezberdinetan ibiltzeko gai den artista, Burt Bacharach, Chaka Kahn, Michael Bolton edo The Crusaders artistekin elkarlanak egin dituen. 2023an bere azken albuma argitaratu zuen, *Crooning Undercover*, non Burt Bacharach, Bill Withers, Julie Andrews, King Pleasure, Freddy Cole edo Al Jarreau izen garrantzitsuei omenaldia egiten dien.

Musika eta antzerkia fusionatzen dituen proiektu interesgarri bat aurreikusi dugu maiatzaren 8rako. **Il Lamento di Caravaggio** kontzertu dramatizatu bat da, non artistek margolari italiar handiaren koadroak birsortzen dituzten, esperientzia mistiko eta sentzorial batean bildutako entzuleen aurrean. **Carlos Mena** kontratenorrak eta **Tiento Nuovo** orkestrak ahots eta instrumentu musika interpretatzen dute **Teatri 35** konpainiaren aktoreen lana duen ikuskizun honetan.

Maiatzaren 15ekoa tango gaua izango da. **Basilio Astúlez**en zuzendaritzapean, **San Juan Bautista abesbatzak**, **Narrea Intxausti** sopranoak, **Edgardo Otero** bandoneonista buenosairestarrak, **Alos Quintetek** eta **Itxaso Sainz de la Maza** pianistak **El alma en un tango** aurkeztuko dute, Astor Piazzola, Ariel Ramírez eta Martin Palmeriren musikaz osatutako kontzertua, Buenos Airesera egindako bidai. Eta antzeko bide estilistikoetatik ibiliko da **Quinteto Astor Piazzolla** ekainaren 12an, Piazzolla maisu handiari omenaldia egiten dionean, tango irauli zuen konpositorearen obra zabala bizirik mantentzen duen kontzertuarekin.

Astebete lehenago, ekainaren 5ean, pianista eta interprete gisa duen birtuosismoarekin liluratzeaz gain, sare sozialetan benetako fenomeno bihurtzen ari delako ezaguna den **Tony Ann** musikariaren kontzertua eskainiko da. Annek arrakastaz erabiltzen ditu laurogeita zortzi teklak bere onurarako, emozioz, teknikaz eta aniztasunez betetako konposizio originalak eskainiz. Sare sozialetan, mundu mailan, 100 milioi bisita baino gehiago eta 5 milioi jarraitzaile baino gehiago dituen artista honek genero neoklasikoaren mugak gainditzen dituen emanaldia eskainiko du.

Foyerreko espazioa

Arriagako foyerrean ere kontzertuak izango ditugu denboraldian zehar, Lied Arriagan zikloaren baitan programatutakoez gain. Lehen errezitala, **Méodies du Pays Basque** izenekoa, urriaren 15ean izango da, Beñat Egiarte tenorrak eta Josep Buforn pianistak Ravel, Sorozabal eta Canteloube-ren obrak interpretatzen dituztenean. Azaroaren 13an **Antton Valverde**ek, oso gustu onez, hainbat euskal egileren poemak musikatzeko proposatzen dituen doinuak entzungo ditugu. Valverde beti berarekin daraman pianoarekin eta musikari bikainek lagunduta agertuko da.

Azaroaren 19an **Daniela Tabernig** sopranoak eta **Tomás Ballicora** pianistak Argentinako ganbera-kanten errezital bat eskainiko dute, XIX. eta XX. mendeetan zehar Espainiaren eta Latinoamerikaren artean zegoen musika-zubia erakutsiz. 2025eko martxoan, hilaren 4an, foyerrak emakume konpositoreei eskainitako kontzertua hartuko du, *Ellas*, **Andrea Jiménez** sopranoaren, **Marion Desjardes** harpistaren eta **Néstor Sutil** flautistaren eskutik. Eta maiatzaren 21ean, **Joserra Senperena** piano jotzaileak eta **Maite Arruabarrena** mezzosopranoak **Lied Koaderno**a errezitaldia eskainiko dute, poesiatik abiatzen diren baina generotik haratago doazen abestiekin osatutako emanaldia.

Musikal arrakastatsuak

Jada iragarri den *El fantasma de la ópera*z gain, beste bi musikal handiz gozatu ahalko dugu. Horietako bat Broadway-ko musikal ospetsuenetako bat da: **Chicago**. Bere partitura, hitzak, libretoa eta koreografiak inoiz izan diren antzerki musikalaren egilerik handienetako hiruri dagozkie: John Kander, Fred Ebb eta Bob Fosse-ri. 38 herrialdetan antzeztutako eta 34 milioi ikuslek baino gehiagok ikusitako obra baten muntaia berri bati buruz ari gara. Ospeari eta halabeharrari buruzko istorio unibertsal bat kontatzen du, partitura mitiko batekin eta inoiz egin den onenen artean aintzatetsitako koreografia batekin. Arriaga Antzokiak Chicago bihurtuta agurtuko du 2024. urtea, eta produkzio berri horren 28 emanaldi eskainiko ditu abenduaren 5etik 29ra bitartean.

Hirugarren musikala azken urteotako ikuskizun arrakastatsuenetako bat da: **Priscilla, reina del desierto**. Bilbora itzuliko da -2017ko Aste Nagusian sekulako arrakasta izan zuen- otsailaren 6tik 9ra, ikuskizunaren produkzio berri bat eskaintzera. Australiako basamortua musikari izena ematen dion autobusean zeharkatzen duten hiru artista dragen abenturak itzuliko dira; maitasun eta adiskidetasun bila egindako bidaia 40 artistak interpretatzen dute, 500 jantzi baino gehiagoko bilduma handi batekin, 200 aparteko burukorekin eta inoiz gehien dantzatu den soinu bandarekin.

Sarrerak salgai izango dira ekainaren 24an

2024-2025 denboraldiko ikuskizun guztietarako sarrerak ekainaren 24tik, astelehenetik, aurrera egongo dira eskuragarri, ohiko bideetan: www.teatroarriaga.eus webgunean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian. Salbuespena *El fantasma de la ópera* da, dagoeneko salgai baitago.

Gazte Kupoa

Azpimarratu behar da Arriaga Antzokiak sendotuko duela aurten publiko gaztearen alde egindako apustua, Lagun Gaztearen irudia indartuz (16-30 urte), Arriagaren Lagunen programaren barruan, abantaila berri eta interesgarriez hornituz. Horrela, datorren denboraldian, Arriagaren Lagunak programaren barruko ikuskizunentzat 5 euroko sarreraren kopuru mugatu bat salduko da, leihatilan soilik. Berariaz adieraziko da salmenta hasten denetik zer ikuskizunek eskaintzen dituzten sarrera horiek. Gazte Kupoa/Cupo Joven izenekoak bat egiten du Lagun Gazteentzat lehendik dauden abantailekin, hala nola, ikuskizun askotarako sarrerak azken orduan % 70eko deskontuarekin erosteko aukerarekin, edo promozio eksklusiboetarako, zozketetarako eta abarretarako sarbidearekin.

Kontsultatu datozen ikuskizunak hemen, ordena kronologikoan:
<https://www.teatroarriaga.eus/proximos-espectaculos/?lang=eu>

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus